



## **HAURRESKOLAK PARTZUERGOAREN ZENTROETARAKO ESKOLA-ALTZARIEN ETA TRESNERIAREN HORNIDURARI BURUZKO ESPARRU-AKORDIOA GAUZATZEKO BALDINTZA TEKNIKOEN AGIRIA**

ESPEDIENTE-ZK.: 001/20

### **1- HELBURUA:**

Baldintza-agiri honen helburua esparru-erabaki honen xede diren altzariak eta tresneriak bete behar dituzten gutxieneko betekizunak eta baldintza teknikoak ezartzea da.

### **2- PRODUKTUEN SORTAK ETA AZPISORTAK:**

Esparru-akordio honen xede diren altzariak eta tresnak lote desberdinetan sailkatu dira, eta sorta horiek, era berean, azpiloteetan banatuta daude. Esparru Akordioako enpresa izateko, ez da beharrezkoa lote eta azpilote guztietarako produktuak aurkeztea. Hala ere, Haurreskolak Partzuergoko zentroek familia bakoitzeko askotariko produktuak eduki ahal izateko, ezarritako gutxieneko baldintzak betetzen dituzten artikuluen gutxieneko kopuru bat aurkeztu beharko da azpilote bakoitzeko (kopuru hori artikuluko multzo bakoitzaren deskribapenean zehazten da). Gutxieneko kopurua errespetatzen ez bada, hornitzailea Esparru Akordiotik kanpo geratuko da lote eta/edo azpilote horretarako.

Sorta edo azpi sortaren bat hutsik geratu bada, Haurreskolak Partzuergoak produktu horiek esparru-akordiotik kanpoko hornitzaileei erosteko aukera izango du.

Horrez gain, eskainitako artikuluko bakoitzeko 4 urteko gutxieneko bermea eskaini beharko da 1etik 5erako loteei dagokienez, eta 2 urtekoa 6. loteari dagokionez.

Jarraian zehaztu dira produktu-talde bakoitzeko produktuek bete behar dituzten ezaugarriak:

#### **1. SORTA – LOTARAKO ELEMENTUAK**

##### 1.1. AZPISORTA - SEHASKA

##### **Deskribapen orokorra:**

Egurrezko egitura duen sehaska, altueran erregulagarria den somierrarekin. Lau gurpil izango ditu, aurrealdeko bi gurpiletan balaztak izango dituelarik. Sehaskaren alboetan egurrezko barrote distantziakideak egongo dira. Sehaskak albo irristakorra izatea baloratuko da.

Egurra uretarako berniz bidez babestuta egongo da, ez toxikoa. Ertzak biribilak eta ertz bizirik gabeak izango dira.

##### **Funtzionaltasuna:**

Sehaska 0-1 urteko haurrek atsedean hartzeko diseinatuta egongo da, maneiagarria izango da eta hezitzaileek haurraren duten irisgarritasuna bermatuko du.

Sehaskek erabilera-jarraibideak izan beharko dituzte.



### **Datu teknikoak:**

MATERIALAK: Egur bernizatua, uretara.

NEURRI HURBILDUAK: GUZTIZKO ALTUERA: 950mm  
ZABALERA: 600mm  
LUZERA: 1000mm

### **Gutxieneko kopurua:**

2 erreferentzia.

#### 1.2. AZPISORTA – SEHASKA BAXUA (EDO OHE TXIKIAK)

### **Deskribapen orokorra:**

Egurrezko egitura duen sehaska bat, haurra irteteko eta sartzeko aukera ematen duena, haurraren autonomia areagotuz altxatzeko eta oheratzeko orduan.

Buruak kurboak izatea baloratuko da, sarbidea ahalbidetzeko.

Egurra uretarako berniz bidez babestuta egongo da, ez toxikoa. Ertzak biribilak eta ertz bizirik gabeak izango dira.

### **Funtzionaltasuna:**

Sehaska (edo behe-ohea) 0-1 urteko haurren atsedenerako diseinatuta egongo da, eta haurtxoa irteteko eta sartzeko aukera emango du, haren autonomia sustatze aldera.

Sehaskek erabilera-jarraibideak izan beharko dituzte.

### **Datu teknikoak:**

MATERIALAK: Egur bernizatua, uretara.

NEURRI HURBILDUAK: GUZTIZKO ALTUERA: 300mm  
ZABALERA: 600mm  
LUZERA: 1000mm

### **Gutxieneko kopurua:**

Erreferentzia 1.

#### 1.3. AZPISORTA – EBAKUAZIO-SEHASKA

### **Deskribapen orokorra:**

Egurrezko egitura duen sehaska, larrialdietan haurrak ebakutzeko. Lau gurpil izango ditu eta aurreko bi gurpiletan balaztak izango ditu.



Egurra uretarako berniz ez-toxikoarekin babestuta egongo da. Ertzak biribilak eta ertz bizirik gabeak izango dira.

Egunerokotasunean normaltasun osoz erabiliko diren sehaskak direnez, sehaskei buruz indarrean dagoen araudia bete beharko dute (UNE-EN 716).

Aipatutako araudiaz gain, baldintza teknikoen agiri honetako 3.3 puntuan adierazitako laborategiko probak ere egin beharko dira, horren ziurtagiria aurkeztuta.

### **Funtzionaltasuna:**

Sehaska 0-1 urteko haurrek atsedean hartzeko diseinatuta egongo da, maneiagarria izango da eta hezitzaileek haurrarekiko duten irisgarritasuna bermatuko du.

Era berean, larrialdi kasuetan haurrak azkar ebakutzeko aukera emango du.

### **Datu teknikoak:**

MATERIALAK: Egur bernizatua, uretara.

NEURRI HURBILDUAK: GUZTIZKO ALTUERA: 950mm

ZABALERA: 600mm

LUZERA: 1.000mm

### **Gutxieneko kopurua:**

Erreferentzia 1.

### 1.4. AZPISORTA – LOTARAKO KOLTZOIA

### **Deskribapen orokorra:**

Latexez edo aparrez egindako atsedean-koltzoia, 19-25 kg/m<sup>3</sup>-ko dentsitatea duena.

Koltxoiaren estaldura josi edo kremlera ezkutuarekin egin daiteke. Gainera, tratamendu bat izan behar dute edo bakterianoa edo akaroen aurkakoa dela bermatu behar dute.

Era berean, garbitzeko moduko ordezko 3 zorro-erdi eraman beharko dituzte (ehuna, oihal plastifikatua, banbu ekologikoa). Zorro horiek bakterioen kontrakoak eta akaroen kontrakoak izan beharko dute, mikrotranspirableak, eta kotoia baino gehiago xurgatu beharko dute.

### **Funtzionaltasuna:**

Atsedendaldi eroso eta gordetzeko erraztasuna ahalbidetzen ditu. Ur eta xaboiarekin erraz garbitzen dira.

### **Datu teknikoak:**

MATERIALAK: Koltzoia: latex edo aparra.



Estaldura: erdi-larrua.

Koltxoiaren dentsitatea: 19-25kg/m<sup>3</sup>.

NEURRI HURBILDUAK: LODIERA: 50-100mm  
ZABALERA: 500-600mm  
LUZERA: 1.000-1.200mm

**Gutxieneko kopurua:**

2 erreferentzia.

1.5. AZPISORTA – SIESTARAKO HAMAKA

**Deskribapen orokorra:**

Plastikozko materialez egindako haurrentzako hamakak. 4 oineko egitura, erresistentzia handiko barra metalikoekin. Gurpildun oinarri bidez pilagarriak, garraio erraza ahalbidetzen dutenak. Oihal sareztatu oso erresistentea eta garbigarria.

**Funtzionaltasuna:**

Atsedendaldi eroso eta gordetzeko erraztasuna ahalbidetzen ditu. Ur eta xaboiak erraz garbigarria.

**Datu teknikoak:**

MATERIALAK: Plastikoa.

NEURRI HURBILDUAK: ALTUERA: 120mm  
ZABALERA: 550mm  
LUZERA: 1.300mm

**Gutxieneko kopurua:**

2 erreferentzia.

1.6. AZPISORTA – OHEKO ARROPA

**Deskribapen orokorra:**

Atsedenerako elementuetarako askotariko ohe-arropa:

- Sehaskak:

- Koltxoa: zorrotik ateratzeko modukoa izan beharko du, eta kurtsore babestua izan beharko du.
- Enpatatzailea: % 100eko kizkur iragazgaitza, transpiragarria, bakterio-kontrakoa eta fungizida.



- Izara jokia: iragazgaitza eta transpiragarria. Koltxoira doigarria eta substantzia toxikorik gabeko ehunekin egina.
- Edredoia eta zorroa edo manta: atsegina izan dadila udan eta isolatzailea neguan, bakterioen eta akaroen aurkakoa eta garbitzeko erraza.
- Buru babesle bigundua: sehaskara doitzeko modukoa eta substantzia toxikorik gabeko ehunekin egina.

- Lotarako koltxoia:

- Izara jokia: iragazgaitza eta transpiragarria. Koltxoira doigarria eta substantzia toxikorik gabeko ehunekin egina.
- Edredoia eta zorroa edo manta: atsegina izan dadila udan eta isolatzailea neguan, bakterioen eta akaroen aurkakoa eta garbitzeko erraza.

- Hamaka siesta:

- Izara-zakua: iragazgaitza eta transpiragarria. Lau puntu doigarri izango ditu. Goma elastikoak izango ditu, egiturari finkatzeko.
- Edredoia eta zorroa edo manta: atsegina izan dadila udan eta isolatzailea neguan, bakterioen eta akaroen aurkakoa eta garbitzeko erraza.

**Funtzionaltasuna:**

Oheko arropa guztia substantzia toxikorik gabeko ehunekoa izango da, erraz garbitzeko modukoa eta suaren aurkakoa.

**Datu teknikoak:**

MATERIALAK:           Sehaska koltxoia: latexa edo kaiak. 25-30 kg/m<sup>3</sup>-ko dentsitatea (latexezko koltxoiak).  
                                  Enpatatzailea: kizkur-oihala, % 100 iragazgaitza, transpiragarria, bakterio-kontrakoa eta fungizida.  
                                  Buruko babeslea: kotoia.  
                                  Izarak: kotoia, poli kotoia, poliesterra.  
                                  Manta edo manta polarra: kotoia, poliesterra, mikro fibrak.  
                                  Edredoia eta zorroa: kotoia, poliesterra.

NEURRI HURBILDUAK:       Koltxoietara doitzeko modukoak.

**Gutxieneko kopurua:**

2 erreferentzia.



## **2. SORTA - BILTEGIRATZEA**

### 2.1. AZPISORTA – ATE ERAISGARRIDUN ARMAIRU ALTUA

#### **Deskribapen orokorra:**

Altzari altua, zur trinkoz edo taula aglomeratuz egina (partikulak edo zuntzak), gutxienez 19 mm-koa, eta goi-presioko akabera melaminizatua edo geruzatua duena. Egurra uretarako berniz bidez babestuta egongo da, ez toxikoa.

Oinarri eta zokalorik gabeko tarte ireki bat eduki ahal izango du beheko aldean, 1.000mm-ko gutxi gorabeherako altuera izango duena. Goiko aldea berriz, armairuaren egiturara ukondotutako giltzarriekin lotuta, zabukariak diren bi ateekin hornitu ahal izango da (barnealdean apalak izango dituen). Aipatutako beheko tarte ireki hori, atzealde baten bidez sendotu ahalko da, altzariaren erresistentzia eta egonkortasuna hobetzeko horrela izan behar dela eskatzen bada. Gainera, armairuaren beheko ataleko aldeek, ku-ku jolasak egiteko diametro egokiko borobil bat eduki ahal izango dute.

Era berean, armairuak apalak eduki ahal izango ditu goiko aldean eta bi ate zabukari beheko aldean (barnealdean apalak izango dituen). Goiko atala atzealde baten bidez sendotu ahalko da, altzariaren erresistentzia eta egonkortasuna hobetzeko horrela izan behar dela eskatzen bada.

Barneko apalak gutxienez 19mm-koak eta altueran doigarriak izango dira.

Ikusgai dauden ertzak eta irteten diren atalak borobilduak izango dira eta ez dute ertz zorrotz edo bizirik edukiko.

Bere erabileran haurren segurtasuna bermatzeko edo jantziak katigatuta ez geratzeko, produktuak ez du torlojurik izango ikusgai.

Altzaria paretari lotuta kokatuko da eta pladurrezko hormetara lotzeko sistema egokia eduki beharko du.

#### **Funtzionaltasuna:**

Haurrek eskuragarri ez izatea nahi dugun objektu eta tresnak gordetzeko altzaria. Azpiko atalak tarte bat badu, hau jolasteko txoko bat egiteko edo material desberdina jasotzeko erabiliko da. Armairuko eremu honetako aldeetan zulo borobil bat egiten bada, ku-ku jolasa egin ahal izango dute haurrek.

#### **Datu teknikoak:**

MATERIALAK: egurra, melaminazko taula, estratuzko taula.

NEURRIAK, GUTXI GORABEHERA:	ALTUERA: 1.800 mm.
	SAKONERA: 500-700 mm.
	LUZERA: 1.000 mm.

#### **Gutxieneko kopurua:**

2 erreferentzia.

### 2.2. AZPISORTA - ATE ERAISGARRIDUN ARMAIRU ERTAINA

#### **Deskribapen orokorra:**



Altzari ertaina, zur trinkoz edo taula aglomeratuz egina (partikulak edo zuntzak), gutxienez 19 mm-koa, eta goi-presioko akabera melaminizatua edo geruzatua duena. Egurra urezko berniz bidez babestuta egongo da, ez toxikoa. Ikusgai dauden ertzak eta irteten diren atalak borobilduak izango dira eta ez dute ertz zorrotz edo bizirik edukiko.

Ate eraisgarriak ditu, ukondotutako zabukarien bidez armairuaren egiturari finkatuta. Barneko apalak gutxienez 19mm-koak eta altueran doigarriak izango dira.

Bere erabileran haurren segurtasuna bermatzeko edo jantziak katigatuta ez geratzeko, produktuak ez du torlojurik izango ikusgai.

**Funtzionaltasuna:**

Haurren eskura egon behar ez duten objektuak edo tresnak gordetzeko altzaria.

**Datu teknikoak:**

MATERIALAK: egurra, melaminazko taula, estratuzko taula.

NEURRIAK, GUTXI GORABEHERA:                     ALTUERA: 1.100 mm.  
   SAKONERA: 400 mm.  
   LUZERA: 900 mm.

**Gutxienerako kopurua:**

2 erreferentzia.

2.3. AZPISORTA – KOLTZOIENTZAKO ARMAIRU ALTUA

**Deskribapen orokorra:**

Presio altuko melamina edo estratuzko akabera duen eta, gutxienez, 19mm-ko zurezko edo aglomeratuzko taulaz (partikulak edo zuntzak) eraikitako egitura duen altzari altua.

Toxikoa ez den urezko berniz batekin babestua egongo da egurra.

Armairuaren egiturara ukondotutako giltzarriekin lotuta, zabukariak diren bi atekin hornitua egongo da. Barneko apalak gutxienez 19mm-koak eta altueran doigarriak izango dira.

Koltxoiak alde batean gordetzeko tartea eta beste aldean apalak izango ditu. Hau da, 13 koltxoi gordetzeko eremu bat eta edredoiak gordetzeko apaldun beste eremu bat.

Armairuaren beheko ataleko aldeek, ku-ku jolasak egiteko diametro egokiko borobil bat eduki ahal izango dute.

Ikusgai dauden ertzak eta irteten diren atalak borobilduak izango dira eta ez dute ertz zorrotz edo bizirik edukiko.

Altzaria paretari lotuta kokatuko da eta pladurrezko hormetara lotzeko sistema egokia eduki beharko du.

Bere erabileran haurren segurtasuna bermatzeko edo jantziak katigatuta ez geratzeko, produktuak ez du torlojurik izango ikusgai.

**Funtzionaltasuna:**

Lotarako koltxoiak eta edredoiak gordetzeko altzaria. Txokoak (ezkutatzeko, jolas desberdinetarako...) sortzea proposa dezake. Armairuaren aldeetan zulo borobil bat egiten bada, ku-ku jolasa egin ahal izango dute hurrek.



**Datu teknikoak:**

MATERIALAK: egurra, melaminazko taula, estratuzko taula.

NEURRIAK, GUTXI GORABEHERA:	ALTUERA: 1.800 mm.
	SAKONERA: 500-700 mm.
	LUZERA: 1.700 mm.

**Gutxieneko kopurua:**

2 erreferentzia.

2.4. AZPISORTA - KOLTZOIENTZAKO ARMAIRU BAXUA

**Deskribapen orokorra:**

Ohe-jantziak gordetzeko atedun armairua.

Presio altuko melamina edo estratuzko akabera duen eta, gutxienez, 19mm-ko (atzealdea izan ezik, 10mm-koa) zurezko edo aglomeratuzko taulaz (partikulak edo zuntzak) eraikitako egitura duen altzari altua.

Toxikoa ez den berniz batekin babestua egongo da egurra. Ikusgai dauden ertzak eta irteten diren atalak borobilduak izango dira eta ez dute ertz zorrotz edo bizirik edukiko.

Armairuaren egiturara ukondotutako giltzarriekin lotuta, zabukariak diren bi ateekin hornitua. Barneko apalak gutxienez 19mm-koak eta altueran doigarriak izango dira.

Alde batean koltxoiak gordetzeko (13 koltxoi gordetzeko edukiera) eta beste aldean edredoiak gordetzeko apaldun eremu batekin antolatuta egongo da.

Ikusgai dauden ertzak eta irteten diren atalak borobilduak izango dira eta ez dute ertz zorrotz edo bizirik edukiko.

Bere erabileran haurren segurtasuna bermatzeko edo jantziak katigatuta ez geratzeko, produktuak ez du torlojurik izango ikusgai.

**Funtzionaltasuna:**

Lotarako koltxoiak eta edredoiak gordetzeko altzaria.

**Datu teknikoak:**

MATERIALAK: egurra, melaminazko taula, estratuzko taula.

NEURRIAK, GUTXI GORABEHERA:	ALTUERA: 1.350 mm.
	SAKONERA: 500-700 mm.
	LUZERA: 1.700 mm.

**Gutxieneko kopurua:**

2 erreferentzia.

2.5. AZPISORTA - EDREDOIEN ARMAIRUA

**Deskribapen orokorra:**

Oheko arropa gordetzeko atea dituen armairua.





Presio altuko melamina edo estratuzko akabera duen eta, gutxienez, 19mm-ko (atzealdea izan ezik, 10mm-koa) zurezko edo aglomeratuzko taulaz (partikulak edo zuntzak) eraikitako egitura duen altzaria.

Toxikoa ez den urezko berniz batekin babestua egongo da egurra. Ikusgai dauden ertzak eta irteten diren atalak borobilduak izango dira eta ez dute ertz zorrotz edo bizirik edukiko.

Armairuaren egiturara ukondotutako giltzarriekin lotuta, zabukariak diren bi atekin hornitua. Barneko apalak gutxienez 19mm-koak eta altueran doigarriak izango dira.

Ikusgai dauden ertzak eta irteten diren atalak borobilduak izango dira eta ez dute ertz zorrotz edo bizirik edukiko.

Bere erabileran haurren segurtasuna bermatzeko edo jantziak katigatuta ez geratzeko, produktuak ez du torlojurik izango ikusgai.

Haurren altueratik gora lotzen da hormara. Honela, gelako beheko espazioa libre geratzen da.

#### **Funtzionaltasuna:**

Oheko arropa gordetzeko altzaria.

Haurren altueratik gora lotzen denez hormara, gelako beheko eremua libre geratzen da. Honek espazio hobeto aprobetxatzeko aukera ematen du.

#### **Datu teknikoak:**

MATERIALAK: egurra, melaminazko taula, estratuzko taula.

NEURRIAK, GUTXI GORABEHERA:	ALTUERA: 800 mm.
	SAKONERA: 500 mm.
	LUZERA: 1.000 mm.

#### **Gutxieneko kopurua:**

2 erreferentzia.

### 2.6. AZPISORTA - APALAK

#### **Deskribapen orokorra:**

Hainbat objektu haurren eskura eta/edo haurren eskutik kanpo jarri ahal izateko apala. Atzealdea, L edo T forma, alboetako diseinuak... dituzten soluzioak aurkeztu ahal izango dira.

Presio altuko melamina edo estratuzko akabera duen eta, gutxienez, 19mm-ko zurezko edo aglomeratuzko taulaz (partikulak edo zuntzak) eraikitako egitura duen altzaria.

Toxikoa ez den uretako berniz batekin babestua egongo da egurra. Ikusgai dauden ertzak eta irteten diren atalak borobilduak izango dira eta ez dute ertz zorrotz edo bizirik edukiko.

Produktua paretari lotuta kokatuko da eta pladurrezko hormetara lotzeko sistema egokia eduki beharko du.

#### **Funtzionaltasuna:**

Geletan, bulegoan, korridoretan... hainbat objektu kokatzeko apalak edukitzea.



### **Datu teknikoak:**

MATERIALAK: egurra, melaminazko taula, estratuzko taula.

NEURRIAK, GUTXI GORABEHERA:           LODIERA: 30 mm.  
  LUZERA: 800 mm.  
  SAKONERA: 250 mm.

### **Gutxieneko kopurua:**

2 erreferentzia.

## 2.7. AZPISORTA – KUTXATILADUN ESEKITOKIA

### **Deskribapen orokorra:**

Haurreskolan, gelako sarrera gunean edo korridorean arropa gordetzeko altzaria. Ekipatu beharreko gelen arabera zehaztuko da pertxa/zulo kopurua (13/10/8).

Presio altuko melamina edo estratuzko akabera duen eta, gutxienez, 19mm-ko zurezko edo aglomeratuzko taulaz (partikulak edo zuntzak) eraikitako egitura duen altzaria.

Toxikoa ez den urezko berniz batekin babestua egongo da egurra. Ikusgai dauden ertzak eta irteten diren atalak borobilduak izango dira eta ez dute ertz zorrotz edo bizirik edukiko.

Produktuak arropa eskegitzeko eremu bat izango du kakoekin eta beste objektuak, hala nola, termoak, panpinak... jartzea ahalbidetzen duen balda bat, haur bakoitzarentzako banaka mugatuta egongo den zulo irekiak dituena.

Diseinuak zuloa pertsonalizatzea ahalbidetu behar du, haurren argazkia baldaren aurreko aldean jarrita.

Produktua paretari lotuta kokatuko da eta pladurrezko hormetara lotzeko sistema egokia eduki beharko du.

### **Funtzionaltasuna:**

Haurreskolara iristean, arropa uzteko altzari bat izatea sarreran edo korridorean, beroki, zapata, termo... gordetzea ahalbidetuz.

### **Datu teknikoak:**

MATERIALAK: egurra, melaminazko taula, estratuzko taula.

NEURRIAK, GUTXI GORABEHERA:           ALTUERA: 200 mm.  
  ZABALERA: 200 mm.  
  SAKONERA: 300 mm.

Produktuaren diseinuak instalazioak dituen hormen neurrietara egokitzeko aukera eman behar du.



### **Gutxieneko kopurua:**

2 erreferentzia.

### **2.8. AZPISORTA – ZINTZILIKARIAK/ESEKITOKIAK**

#### **Deskribapen orokorra:**

Jantziak edo beste objektuak gelan, jantokian, korridorean... zintzilikatzeako kakoak dituen egitura. Kako kopurua ekipatu beharreko gelen (8/10/13) arabera zehaztuko da.

Presio altuko melamina edo estratuzko akabera duen eta, gutxienez, 19mm-ko zurezko edo aglomeratuzko taulaz (partikulak edo zuntzak) eraikitako egitura duen altzari altua.

Toxikoa ez den urezko berniz batekin babestua egongo da egurra. Ikusgai dauden ertzak eta irteten diren atalak borobilduak izango dira eta ez dute ertz zorrotz edo bizirik edukiko.

Kako edo heldulekuak plastikozkoak edo egurrezkoak izan daitezke. Kakoan torlojuak erroseta bidez ezkutatuak egon behar dira.

Produktua paretari lotuta kokatuko da eta pladurrezko hormetara lotzeko sistema egokia eduki beharko du.

#### **Funtzionaltasuna:**

Jantzi eta objektu desberdinak zintzilikatu ahal izateko esekigailu/kakoak edukitzea.

#### **Datu teknikoak:**

MATERIALAK: egurra, melaminazko taula, estratuzko taula.

NEURRIAK, GUTXI GORABEHERA:                   ALTUERA: 100 mm.  
LUZERA: 1.000 mm.

Produktuaren diseinuak instalazioak dituen hormen neurrietara egokitzeko aukera eman behar du.

### **Gutxieneko kopurua:**

2 erreferentzia.

### **2.9. AZPISORTA – HAURRENTZAKO ARMAIRUAK/ESEKITOKIAK**

#### **Deskribapen orokorra:**

Haurreskolan, gelako sarrera gunean edo korridorean arropa gordetzeko altzaria. Esekitori/zulo kopurua ekipatu beharreko gelen (8/10/13) arabera zehaztuko da.

Diseinu desberdinak izan ditzake; armairu motako atedun kutxatilatzea, kakoak dituen apalategi irekia, objektuak gordetzea ahalbidetzen duen eta berokiak zintzilikatzeako eremua duen modulu sistema...



Presio altuko melamina edo estratuzko akabera duen eta, gutxienez, 19mm-ko zurezko edo aglomeratuzko taulaz (partikulak edo zuntzak) eraikitako egitura duen altzari altua.

Toxikoa ez den urezko berniz batekin babestua egongo da egurra. Ikusgai dauden ertzak eta irteten diren atalak borobilduak izango dira eta ez dute ertz zorrotz edo bizirik edukiko.

**Funtzionaltasuna:**

Sarreran edo korridorean, jantokian, geletan... arropa eta objektu desberdinak zintzilikatzeko altzari bat edukitzea. Hala nola, beroki, zapata, termo, adur-zapi, ahozapi... gordetzeko aukera ematea.

**Datu teknikoak:**

MATERIALAK: egurra, melaminazko taula, estratuzko taula.

NEURRIAK, GUTXI GORABEHERA:                   ALTUERA: 1.000 mm.  
  LUZERA: 700-1.000 mm.  
  SAKONERA: 400mm

Produktuaren diseinuak instalazioak dituen hormen neurrietara egokitzeko aukera eman behar du.

**Gutxieneko kopurua:**

2 erreferentzia.

2.10. AZPISORTA – KUTXATILA/ALDATZEKO EREMUA

**Deskribapen orokorra:**

Haurrak aldatzeko eremuan jartzeko zulo irekiak dituen kutxatilategia. Zulo lerroa bi altueratan izango da. Zulo kopurua ekipatu beharreko gelen (8/10/13) arabera zehaztuko da.

Presio altuko melamina edo estratuzko akabera duen eta, gutxienez, 19mm-ko zurezko edo aglomeratuzko taulaz (partikulak edo zuntzak) eraikitako egitura duen altzari altua.

Toxikoa ez den urezko berniz batekin babestua egongo da egurra. Ikusgai dauden ertzak eta irteten diren atalak borobilduak izango dira eta ez dute ertz zorrotz edo bizirik edukiko.

Produktua paretari lotuta kokatuko da eta pladurrezko hormetara lotzeko sistema egokia eduki beharko du.

**Funtzionaltasuna:**

Haurren pixoihalak, aldatzeko jantziak eta garbiketarako produktuak gordetzeko edukiera duen altzaria. Produktuak atea eduki ditzake. Gainera, erraz pertsonalizatzeko modukoa izan beharko da (izenak, argazkiak...).



### **Datu teknikoak:**

MATERIALAK: egurra, melaminazko taula, estratuzko taula.

NEURRIAK, GUTXI GORABEHERA:           ALTUERA: 200 mm.  
  ZABALERA: 200 mm.  
  SAKONERA: 300mm

Produktuaren diseinuak instalazioak dituen hormen neurrietara egokitzeko aukera eman behar du.

### **Gutxieneko kopurua:**

2 erreferentzia.

## 2.11. AZPISORTA – ALTUEREN ALTZARI ZATITZAILEA

### **Deskribapen orokorra:**

Presio altuko melamina edo estratuzko akabera duen eta, gutxienez, 19mm-ko zurezko edo aglomeratuzko taulaz (partikulak edo zuntzak) eraikitako egitura duen altzari banatzaile baxua.

Altzariak bi sektoretan edo erditan banatzen duen banaketa bertikala izan dezake. Era berean, altzaria bi altueratan banatzen duen erdiko apal bat ere izan dezake.

Toxikoa ez den urezko berniz batekin babestua egongo da egurra. Ikusgai dauden ertzak eta irteten diren atalak borobilduak izango dira eta ez dute ertz zorrotz edo bizirik edukiko.

Bere erabileran haurren segurtasuna bermatzeko edo jantziak katigatuta ez geratzeko, produktuak ez du torlojurik izango ikusgai.

### **Funtzionaltasuna:**

Beharraren arabera funtzio desberdinak dituen altzari banatzailea:

- Haurren altuerara dagoen apalategi-altzaria, bertan dauden objektu guztietara iristeko eta gainean jolasteko aukera ematen diena.
- Eremuak banatzeko altzaria. Bere mugikortasuna dela eta, gelako edozein lekutan koka daiteke espazio banatzaile moduan eta honek eremu desberdinak sortzea ahalbidetzen du.

### **Datu teknikoak:**

MATERIALAK: egurra, melaminazko taula.

NEURRIAK, GUTXI GORABEHERA:           ALTUERA: 500 mm.  
  LUZERA: 1.100 mm.  
  SAKONERA: 500mm

### **Gutxieneko kopurua:**

2 erreferentzia.



## 2.12. AZPISORTA – APALDUN ALTZARIA (ATZEALDERIK GABE)

### **Deskribapen orokorra:**

Presio altuko melamina edo estratuzko akabera duen eta, gutxienez, 19mm-ko zurezko edo aglomeratuzko taulaz (partikulak edo zuntzak) eraikitako egitura duen apalategi altzaria.

Toxikoa ez den urezko berniz batekin babestua egongo da egurra. Ikusgai dauden ertzak eta irteten diren atalak borobilduak izango dira eta ez dute ertz zorrotz edo bizirik edukiko.

Bere erabileran haurren segurtasuna bermatzeko edo jantziak katigatuta ez geratzeko, produktuak ez du torlojurik izango ikusgai.

Altzaria altueretan modu mailakatuan eta atzealderik gabe banatutako hutsune-lerroz osatuta egongo da, ikuspenik kendu gabe espazioak mugatu ahal izateko.

Altzariaren beheko aldean, haurren altuerara objektuak eta jostailuak gordetzeko, egurrezko kaxoiak gehitu ahalko dira. Kaxoien aurrealdeak barnean dagoena ikustea ahalbidetu behar du (kaxoiaren aurrealdea leihatilarekin).

Hainbat tamaina eta koloretako kubetak ere eduki ahal izango ditu, zulo guztietan edo batzuetan txertatuta.

### **Funtzionaltasuna:**

Ikuspenera kendu gabe espazioak banatzea eta jostailuak gordetzea ahalbidetzen duen altzaria.

### **Datu teknikoak:**

MATERIALAK: egurra, melaminazko taula, estratuzko taula.

NEURRIAK, GUTXI GORABEHERA:                    ALTUERA: 1.800 mm.  
  LUZERA: 1.000 mm.  
  SAKONERA: 400mm

### **Gutxienerako kopurua:**

2 erreferentzia.

## 2.13. AZPISORTA – APALDUN ALTZARIA (ATZEALDEAREKIN)

### **Deskribapen orokorra:**

Altzari irekia, hainbat altueratako apal erregulagarriekin eta atzealdearekin.

Presio altuko melamina edo estratuzko akabera duen eta, gutxienez, 19mm-ko (atzealdea izan ezik, 10mm-koa) zurezko edo aglomeratuzko taulaz (partikulak edo zuntzak) eraikitako egitura duen altzari altua.

Toxikoa ez den urezko berniz batekin babestua egongo da egurra. Ikusgai dauden ertzak eta irteten diren atalak borobilduak izango dira eta ez dute ertz zorrotz edo bizirik edukiko.

Altzariaren beheko aldean, haurren altuerara objektuak eta jostailuak gordetzeko, egurrezko kaxoiak gehitu ahalko dira. Kaxoien aurrealdeak barnean dagoena ikustea ahalbidetu behar du (kaxoiaren aurrealdea leihatilarekin).

Hainbat tamaina eta koloretako kubetak ere eduki ahal izango ditu, zulo guztietan edo batzuetan txertatuta.



**Funtzionaltasuna:**

Beharren arabera, haurraren eskura edo ez egon daitezkeen objektuak eta/edo kubetak gordetzeko altzari bat edukitzea.

**Datu teknikoak:**

MATERIALAK: egurra, melaminazko taula, estratuzko taula.

NEURRIAK, GUTXI GORABEHERA: ALTUERA: beharren arabera (baxua/ertaina/altua)  
LUZERA: 800 mm.  
SAKONERA: 400mm

**Gutxieneko kopurua:**

2 erreferentzia.

2.14. AZPISORTA – LIBURUEN ERAKUSTOKIA

**Deskribapen orokorra:**

Liburuak, eta baita jostailu eta objektuak ere, antolatzeke altzaria.

Presio altuko melamina edo estratuzko akabera duen eta, gutxienez, 19mm-ko zurezko edo aglomeratuzko taulaz (partikulak edo zuntzak) eraikitako egitura duen altzaria.

Toxikoa ez den urezko berniz batekin babestua egongo da egurra. Ikusgai dauden ertzak eta irteten diren atalak borobilduak izango dira eta ez dute ertz zorrotz edo bizirik edukiko.

Bere erabileran haurren segurtasuna bermatzeko edo jantziak katigatuta ez geratzeko, produktuak ez du torlojurik izango ikusgai.

**Funtzionaltasuna:**

Haurrei liburuak modu autonomoan deskubritzeko aukera emango dieten ipuin-txokoak sortzeko altzaria.

Espazioa aprobetxatuz, liburuak erakustea eta antolatzea ahalbidetzen duen altzaria.

Mota guztietako espazioen antolaketa-beharrak asetzeko aukera ugari ematen dituen altzaria.

**Datu teknikoak:**

MATERIALAK: egurra, melaminazko taula, estratuzko taula.

NEURRIAK, GUTXI GORABEHERA: baxua/ertaina/altua

**Gutxieneko kopurua:**

2 erreferentzia.



### **3. SORTA – MAHAIK ETA AULKIAK**

#### **3.1. AZPISORTA – MAHAIA: MODULU MULTZOA**

##### **Deskribapen orokorra:**

Multzo geometriko desberdinak eratzeko eta geletan egingo diren jarduera desberdinei (tailerra, pintura, jatorduak...) konponbidea emateko aukera ematen duen mahai multzo sistema.

Mahaien egitura egurrezkoa izango da eta estratu azalak presio altukoak.

Toxikoa ez den berniz batekin babestua egongo da egurra. Ikusgai dauden ertzak eta irteten diren atalak borobilduak izango dira eta ez dute ertz zorrotz edo bizirik edukiko.

Mahaiaren modulu desberdinak beraien artean akoplatzeko modukoak eta maneiukorrak izan behar dira, gelako edozein txokotan jarri ahal izateko.

##### **Funtzionaltasuna:**

Produktuaren moldakortasuna bermatu behar da. Multzoa osatzen duten modulu bat edo batzuekin modu independentean edo batera la egiteko aukera eman behar du.

Multzoak 13 haur batera kabitzea bermatu behar du.

Bolumen eta azalera erabilgarriaren arteko erlazioa optimizatua duten produktuak eskatuko dira.

Produktuak hanketan lurzorua hondatu eta soinua egitea ekiditen duten babes-takoak izatea baloratuko da.

##### **Datu teknikoak:**

MATERIALAK: Egitura: bernizatutako egurra  
Mahaiaren taparen akabera: presio altuko estratua.

NEURRIAK: ALTUERA: EN 1729 arauaren arabera, 00, 0 eta 1 neurriak..  
LUZERA: ≤900 mm.

##### **Gutxieneko kopurua:**

2 erreferentzia.

#### **3.2. AZPISORTA – EGURREZKO HAUR MAHAIA**

##### **Deskribapen orokorra:**

Geletan egingo diren jarduera desberdinei (tailerra, pintura, jatorduak...) konponbidea emateko aukera ematen duen mahaia. Mahaiek izan ditzaketen irudi geometriko desberdinak ondorengoak dira: angeluzuzena, karratua, trapezoidala, ferra, borobila, ilargi erdia eta pentagonala.

Toxikoa ez den berniz batekin babestua egongo da egurra. Ikusgai dauden ertzak eta irteten diren atalak borobilduak izango dira eta ez dute ertz zorrotz edo bizirik edukiko.





### **Funtzionaltasuna:**

Gelan erabiltzeko mahaia. Produktua gelan ahalik eta hobekien moldatzea bilatuko da. Hori dela eta, bolumen eta azalera erabilgarriaren arteko erlazioa optimizatua duten produktuak eskatuko dira.

Produktuak hanketan lurzorua hondatu eta soinua egitea ekiditen duten babes-takoak izatea baloratuko da.

### **Datu teknikoak:**

MATERIALAK: Egitura: bernizatutako egurra  
Mahaiaren taparen akabera: presio altuko estratua.

NEURRIAK: ALTUERA: EN 1729 arauaren arabera, 00, 0 eta 1 neurriak..  
LUZERA-ZABALERA: irudi geometrikoaren arabera.

### **Gutxieneko kopurua:**

2 erreferentzia.

### **3.3. AZPISORTA –MAHAIA ERAISGARRIA**

#### **Deskribapen orokorra:**

Geletan egingo diren jarduera desberdinei (tailerra, pintura, jatorduak...) konponbidea emateko aukera ematen duen paretari lotutako mahai eraisgarria.

Mahaien egitura egurrezkoa izango da eta estratu azalak presio altukoak.

Toxikoa ez den berniz batekin babestua egongo da egurra. Ikusgai dauden ertzak eta irteten diren atalak borobilduak izango dira eta ez dute ertz zorrotz edo bizirik edukiko.

Mahaia paretari lotuta egon beharko da. Hori dela eta, paretari lotzeko sistema egokia duela bermatu behar du, pladurrezko paretak barne.

#### **Funtzionaltasuna:**

Jarduera desberdinak egitea eta, behar ez denean, gelaren espazioa optimizatzea ahalbidetzen duen mahai eraisgarria.

#### **Datu teknikoak:**

MATERIALAK: Egitura: bernizatutako egurra  
Mahaiaren taparen akabera: presio altuko estratua.

NEURRIAK: ALTUERA: EN 1729 arauaren arabera, 00, 0 eta 1 neurriak..  
LUZERA: 1200mm.  
ZABALERA: 600mm.

#### **Gutxieneko kopurua:**

2 erreferentzia.



### 3.4. AZPISORTA – HAUR-AULKI BAJUA

#### **Deskribapen orokorra:**

Egurrezko egitura eta aulki bilakatzeko aukera ematen duen haur-aulki bajua. Erretilu bat eta haurraren segurtasuna bermatuko duen euskarria eduki behar ditu. Produktua pilatzeko modukoa izan beharko da.

Toxikoa ez den berniz batekin babestua egongo da egurra. Ikusgai dauden ertzak eta irteten diren atalak borobilduak izango dira eta ez dute ertz zorrotz edo bizirik edukiko.

Gainazalak ez du porotsua izan behar, garbiketa eta desinfekzioa erraztuz.

#### **Funtzionaltasuna:**

Produktua 6 hilabetetik gorako haurren erabilerara zuzenduko da. Horregatik, haurraren garapenera egokitzen den ergonomia izan beharko du.

Erretilua desmontagarria izango da. Honela, produktuaren aldaberatasuna hobetzen da, haur-aulki edo aulki soil moduan erabili ahal izango da eta. Erretilua erraz garbitzeko modukoa izango da.

Produktuak hanketan lurzorua hondatu eta soinua egitea ekiditen duten babes-takoak izatea baloratuko da.

#### **Datu teknikoak:**

MATERIALAK: Egitura: bernizatutako egurra  
Mahaiaren taparen akabera: presio altuko estratua.

NEURRIAK: ALTUERA: EN 1729 arauaren arabera, 00, 0 eta 1 neurriak..

#### **Gutxieneko kopurua:**

Erreferentzia 1.

### 3.5. AZPISORTA – HAUR-AULKI ALTUA

#### **Deskribapen orokorra:**

Egurrezko edo plastikozko egitura duen trona, erretilua duena eta haurraren segurtasuna bermatzen duten ainguraketak dituena. Produktuak haurra mahaiaren parean jartzeko aukera eman beharko du.

Toxikoa ez den berniz batekin babestua egongo da egurra. Ikusgai dauden ertzak eta irteten diren atalak borobilduak izango dira eta ez dute ertz zorrotz edo bizirik edukiko.

Gainazalak ez du porotsua izan behar, garbiketa eta desinfekzioa erraztuz.

#### **Funtzionaltasuna:**

Produktua 6 hilabetetik gorako haurren erabilerara zuzenduko da. Horregatik, haurraren garapenera egokitzen den ergonomia izan beharko du.

Erretilua erraz garbitzeko modukoa izango da.

Produktuak hanketan lurzorua hondatu eta soinua egitea ekiditen duten babes-takoak izatea baloratuko da.



### **Datu teknikoak:**

MATERIALAK: Egitura: bernizatutako egurra  
Mahaiaren taparen akabera: presio altuko estratua.

### **Gutxieneko kopurua:**

2 erreferentzia.

## 3.6. AZPISORTA – AULKIAK

### **Deskribapen orokorra:**

Egurrezko egitura duen aulkia. Toxikoa ez den berniz batekin babestua egongo da egurra. Ikusgai dauden ertzak eta irteten diren atalak borobilduak izango dira eta ez dute ertz zorrotz edo bizirik edukiko.

Gainazalak ez du porotsua izan behar, garbiketa eta desinfekzioa erraztuz.

Bere erabileran haurren segurtasuna bermatzeko edo jantziak katigatuta ez geratzeko, produktuak ez du torlojurik izango ikusgai.

Besodun eta beso gabeko aukerak aurkeztuko dira.

### **Funtzionaltasuna:**

Aulkia pilatzeko modukoa izango da, errazago gordetzeko, eta haurraren bilakaerari egokitutako ergonomia izango du.

Baloratuko da produktua hanketako babes-takoekin hornituta egotea, zorua hondatzea eta zarata egitea saihesteko.

### **Datu teknikoak:**

MATERIALAK: Egitura: bernizatutako egurra  
Mahaiaren taparen akabera: presio altuko estratua.

NEURRIAK: ALTUERA: EN 1729 arauaren arabera, 00, 0 eta 1 neurriak..

### **Gutxieneko kopurua:**

2 erreferentzia.

## 3.7. AZPISORTA – GANDULITAK

### **Deskribapen orokorra:**

Metalezko egitura duten gandulitak. Beheko eta goiko aldean sendotuta dagoen tapizeria biguna. Produktuak segurtasun-arnesa eduki beharko du.

Produktuaren diseinuak haurraren ergonomia errespetatu beharko du, atsedenerako erosotasun maximoarekin.

Produktua 0tik 2 urtera arteko haurrentzat egokia izan behar da.

Gandulitak tela transpirablea, moldakorra eta erraz garbitzekoa den babes-zorroa eduki behar du.

### **Funtzionaltasuna:**



Etzaulkia, hasieran, esna dagoen denbora tartetan behaketa leku bat da haurrarentzat. 3-4 hilabetetatik aurrera jaten emateko erabil daiteke.

Hamakak altuera gutxienez hiru posizio desberdinetan erregulatzeko aukera eman behar du, haurraren jarrerara modu zuzenean egokitzeko, eroso eta ergonomikoa izanik.

Tapizeria zorrotik ateratzeko modukoa eta erraz garbitzeko modukoa izan behar da.

Eserleku-bizkarraren zurruntasuna eta anatomia baloratuko dira.

Gandulitarentzat aldatzeko zorroa barneratuko du.

#### **Datu teknikoak:**

MATERIALAK: Egitura metalikoa  
Ehunezko estaldura.

NEURRIAK: ALTUERA: 600mm  
ZABALERA: 500mm  
LUZERA: 700mm

#### **Gutxieneko kopurua:**

2 erreferentzia.

### 3.8. AZPISORTA –JARLEKUA

#### **Deskribapen orokorra:**

Presio altuko melamina edo estratuzko akabera duen eta, gutxienez, 19mm-ko zurezko edo aglomeratuzko taulaz (partikulak edo zuntzak) eraikitako egitura duen eserlekua.

Jarlekuak bere beheko aldean biltegitratzea ahalbidetu dezake kubeta, kaxoi edo kutxatilen bidez.

Aukera desberdinak aurkeztu ahalko dira, espazioaren beharren arabera eredu desberdinak eskuratuko dira eta.

Toxikoa ez den urezko berniz batekin babestua egongo da egurra. Ikusgai dauden ertzak eta irteten diren atalak borobilduak izango dira eta ez dute ertz zorrotz edo bizirik edukiko.

Bere erabileran haurren segurtasuna bermatzeko edo jantziak katigatuta ez geratzeko, produktuak ez du torlojurik izango ikusgai.

#### **Funtzionaltasuna:**

Zentroko hainbat espaziotan jar daitekeen bankua, hala nola harrera-gunean edo gelan, eta helduei nahiz haurrei bertan esertzeko aukera emango die.

Kaxek, kubetek edo laukiek hainbat objektu gordetzeko aukera eman behar dute, haien kokapenaren arabera (zapatilak, baberoak, galtzerdiak, liburuak, jostailuak ...).

#### **Datu teknikoak:**

MATERIALAK: egurra, melaminazko taula, estratuzko taula.

NEURRIAK, GUTXI GORABEHERA: ALTUERA: 220mm



ZABALERA: 300mm  
LUZERA: 1.100mm

**Gutxieneko kopurua:**

2 erreferentzia.

**4. SORTA – MAHAI ETA AULKIAK**

4.1. AZPISORTA –MODULU-ISPILUA

**Deskribapen orokorra:**

Gutxienez 5mm-ko lodiera duten lau moduluz osatutako ispilua. Ispiluen izkinen segurtasuna bermatzeko markoa edo antzekoa edukiko du. Paretan finkatzeko sistema eduki behar du.

**Funtzionaltasuna:**

Islak eta gorputz espresioak nola eraldatzen diren eta irudi eta tamainen identifikazioa lantzea ahalbidetzen duen ispilua. Moduluak independenteak izango dira. Honela, gelan sortu nahi diren espazioen arabera, modu bateratuan edo banaka kokatzeko aukera emango dute. Islatzen den irudia gardena eta distortsiorik gabea izan behar da.

**Datu teknikoak:**

NEURRIAK:                   ALTUERA: 1.000mm  
                                  ZABALERA: 500 mm.

**Gutxieneko kopurua:**

2 erreferentzia.

4.2 AZPISORTA – FORMA ETA TAMAINA DESBERDINETAKO ISPILUA

**Deskribapen orokorra:**

Segurtasun-ispilua, hainbat forma eta tamainatakoa, hautsezina, ispiluen izkinen segurtasuna bermatzen duen zurezko markoarekin. Paretan finkatzeko sistema egokia eduki behar du, pladurrezko hormak barne. Toxikoa ez den berniz batekin babestua egongo da egurra. Ikusgai dauden ertzak eta irteten diren atalak borobilduak izango dira eta ez dute ertz zorrotz edo bizirik edukiko.

**Funtzionaltasuna:**

Irudien identifikazioa eta erreflexuen dimentsioak eta eraldaketak lantzea ahalbidetzen duen ispilua, baita gorputz-adierazpena ere. Islatutako irudiak garbia eta distortsiorik gabea izan behar du.



Formen eta tamainen aniztasunak ispilua ikasgelan dagoen espaziora egokitzeko aukera ematen dio ikastetxe bakoitzari.

**Datu teknikoak:**

MATERIALAK: Ispilua: beira.  
Markoa: egurra.

NEURRIAK: ALTUERA: 900mm  
ZABALERA: 1.200 mm.

**Gutxieneko kopurua:**

2 erreferentzia.

4.3 AZPISORTA – INKLINATUTAKO-ISPILUA

**Deskribapen orokorra:**

Izkinen segurtasuna bermatzen duen eta egurrezko markoa duen inklinatutako-ispilua.

Paretan finkatzeko sistema egokia eduki behar du, pladurrezko hormak barne.

Toxikoa ez den berniz batekin babestua egongo da egurra. Ikusgai dauden ertzak eta irteten diren atalak borobilduak izango dira eta ez dute ertz zorrotz edo bizirik edukiko.

**Funtzionaltasuna:**

Garbitasunaren ikasketa lantzea ahalbidetzen duen ispilua.

Islatzen den irudia gardena eta distorsiorik gabea izan behar da.

**Datu teknikoak:**

NEURRIAK: ALTUERA: 300mm  
ZABALERA: 1.000 mm.

**Gutxieneko kopurua:**

2 erreferentzia.

**5. SORTA – PIXOIHALA ALDATZEA**

5.1. AZPISORTA – ALDATZEKO ALTZARIA

**Deskribapen orokorra:**

Presio altuko melamina edo estratuzko akabera duen eta, gutxienez, 19mm-ko zurezko edo aglomeratuzko taulaz (partikulak edo zuntzak) eraikitako haurren



aldaleku mahaia. Gutxienez, aldatzeko koltxoneta jartzea ahalbidetu behar du. Biltegitratze eremuak ere izan ditzake, hala nola, kaxoiak edo armairuak.

Toxikoa ez den berniz batekin babestua egongo da egurra.

Atzealdea eta goiko aldeko alboak egituratik atera beharko dira, segurtasun handiagoa lortzeko.

Ikusgai dauden ertzak eta irteten diren atalak borobilduak izango dira eta ez dute ertz zorrotz edo bizirik edukiko.

Bere erabileran haurren segurtasuna bermatzeko edo jantziak katigatuta ez geratzeko, produktuak ez du torlojurik izango ikusgai.

Egituran eskailera bat sartu ahal izango du, haurra altzari aldatzailean erraz sar dadin.

### **Funtzionaltasuna:**

Pixoihal aldaketa gauzatzen ari den bitartean, haurrak gela begiratzeko aukera ematen dio. Honela, hezitzaile eta haurren arteko harremana ez da hausten, aldaketa egiten ari diren bitartean segurtasuna emanez.

Gainera, bere altuerak aldaketa jarrera tenteago batean egiteko aukera ematen du, beste jarrerak hezitzaileen bizkarrean eragin dezaketen eragin kaltegarria gutxituz.

### **Datu teknikoak:**

NEURRIAK, GUTXI GORABEHERA: LUZERA: 1.200mm  
ZABALERA: 600mm  
GUZTIZKO ALTUERA: 1.100 mm.

### **Gutxieneko kopurua:**

2 erreferentzia.

## 5.2. AZPISORTA – ALDATOKI BERTIKALA

### **Deskribapen orokorra:**

Emmy Piklerren kontzeptuetan oinarritutako eta presio altuko melamina edo estratuzko akabera duen eta, gutxienez, 19mm-ko zurezko edo aglomeratuzko taulaz (partikulak edo zuntzak) eraikitako haurren aldalekua.

Toxikoa ez den berniz batekin babestua egongo da egurra.

Atzealdea eta goiko aldeko alboak egituratik atera beharko dira, segurtasun handiagoa lortzeko.

Ikusgai dauden ertzak eta irteten diren atalak borobilduak izango dira eta ez dute ertz zorrotz edo bizirik edukiko.

Bere erabileran haurren segurtasuna bermatzeko edo jantziak katigatuta ez geratzeko, produktuak ez du torlojurik izango ikusgai.

Alboko atea duten konponbideak onartuko dira. Hau da, albo eraisgarriarekin (ate motakoa), haurra aldagailura erraz sar dadin.

### **Funtzionaltasuna:**

Haurrari aukera ematen dio guztiz aske mugitzeko eta pixoihala aldatzearekin lotutako zaintzetan parte-hartze aktibo eta esku-hartzaile bat izateko. Era berean, segurtasuna, babesa eta lasaitasuna ematen die haurrei.

Beren gorputza ezagutzen ari diren haurren parte-hartze aktiboa uzten duenez, hezitzailearekiko lotura indartzen da.



Gainera, altuera zehatz batean kokatu behar denez, aldaketa jarrera tenteago batean egiteko aukera ematen du, beste jarrerek hezitzaileen bizkarrean eragin dezaketen eragin kaltegarria gutxituz.

#### **Datu teknikoak:**

MATERIALAK: egurra, estratuzko taula, laminatuzko taula.

NEURRIAK, GUTXI GORABEHERA: ALTUERA: 500mm  
ZABALERA: 700mm  
LUZERA: entzimeraren neurrietara egokituta.

#### **Gutxienerako kopurua:**

Erreferentzia 1.

## **6. SORTA – ELIKATZEKO TRESNAK**

### **6.1. AZPISORTA – TERMOAK**

#### **Deskribapen orokorra:**

Helburua haurreskolako hezitzaileen esku termoak jartzea da, haurreskoletako haurren beharrei erantzun ahal izateko. Zehazki, etxetik haurreskolara janaria eramaten duten familiei bertan bazkaltzeko termoak emateko, eta, horrela, haurreskoletako instalazioetan janari horiek egoera onean daudela ziurtatzeko.

#### **Funtzionaltasuna:**

Banakako termoak, haur bakoitzarentzat. Termo bat, ontzi hermetiko bat, bi edo gehiago eduki ahal izango dituena (a bisfenolik gabe, % 100 BPArik gabe).

Elikagaiak, likidoak zein solidoak, garraiatu ahal izateko egokiak izan behar dute.

Barruko ontziak izanez gero, mikrouhin-labeetan eta ontzi-garbigailuan erabili ahal izango dira.

Tenperaturari denboran eusteko gaitasun handia izan behar dute, eta, horretarako, alderdi hori ziurtatzen duen tenperatura-azterketa bat aurkeztu behar da. Azterlanak, gehienez ere, 3 hilabeteko antzinatasuna izan beharko du (prozedura hau Kontratatzaillearen Profilean argitaratu den data hartuko da erreferentzia-datatzat).

Gutxienez, elikagaiak 5 orduz eduki beharko dira bero, haurreskoletan horiek behar bezala mantentzen direla ziurtatzeko, horretarako "elikagaien tenperaturen arrisku-eremu" gisa ezarritako tenperaturak kontuan hartuta.

Garraiatzeko errazak izan behar dute.

Ez dute termotik erori daitezkeen elementu arriskutsurik izan behar.

Termoak edo ontzi bakoitzak behar besteko gaitasuna izan beharko du 0-2 urteko haurren lehen eta bigarren platera garraiatzeko.

Positiboki baloratuko da erabiltzaile-identifikatzailea izatea.

#### **Gutxienerako kopurua:**

Erreferentzia 1.





## 6.2. AZPISORTA – SUKALDEKO TRESNERIA

### **Deskribapen orokorra:**

Hainbat materialez (polikarbonatoa, polipropilenoa, ko-poliesterra edo altzairua) egindako baxera (platerak, bolak, edalontziak ...) eta mahai-tresnak (koilara, sardexka, postre-koilara ...). Kolore erabat neutroa (gardena edo zuria). Ontzi-garbigailuetarako eta mikrouhinetarako egokiak izan behar dute.

### **Funtzionaltasuna:**

0-1 urteko gelan jaten emateko gai, eta, aldi berean, 1-2 urteko haurrek jaten ikasteko gai izan behar dira. Erabat neutroa, zaporerik eta usainik gabekoa.

Kolpeekiko eta garbiketa intentsiboekiko erresistentea.

Komeni da 0-1 urteko gelarako tresneria eta 1-2 urteko gelarako tresneria adinaren arabera bereiztea.

### **Datu teknikoak:**

MATERIALAK: polikarbonatoa, polipropilenoa, ko-poliesterra edo altzairua.

### **Gutxieneko kopurua:**

3 erreferentzia.



### **3- APLIKATU BEHARREKO ARAUDIA:**

#### **3.1.- AMAIERAKO PRODUKTUA**

- UNE-EN 716-1:2018+AC:2019. Etxean erabiltzeko sehaska eta sehaska tolesgarriak haurrentzat. Segurtasun-baldintzak. Zehaztapena: UNE-EN 716-2:2018. Etxean erabiltzeko sehaska eta sehaska tolesgarriak haurrentzat. Saiakuntza-metodoak.

- UNE-EN 16890:2018. Haurrentzako altzariak. Sehaska eta lizunetarako koltxoak. Segurtasun-betekizunak eta saiakuntza-metodoak.

- XPS 54-045 (2014ko abendua). Haurrentzako altzariak. Erabilera kolektiborako haurrentzako oheak. Segurtasun-betekizunak eta saiakuntza-metodoak.

- Oheko arropa: OEKO-TEX 100 ziurtagiria - Substantzia toxikorik gabeko ehunak.

- UNE-EN ISO 12952-1:2011 Ehunak. Oheko artikuluek su hartzeko duten joera ebaluatzea. 1. zatia: su-iturria: zigarreta errekontzan.

- UNE-EN ISO 12952-2:2011 Ehunak. Oheko artikuluek su hartzeko duten joera ebaluatzea. 2. zatia: su-iturria: pospolo baten sugarra.

- UNE-EN 14533:2015, Sailkapena: A klasea. Ehunak eta ehungintzako produktuak. Oherako artikuluek suarekiko duten portaera. Sailkapen-eskema.

- UNE-EN 16121:2014+A1:2017. Etxekoak ez diren biltegitratze-altzariak. Segurtasun-, erresistentzia-, iraunkortasun- eta egonkortasun-baldintzak. Egiturazko segurtasunari buruzko saiakuntzak, 5.7 atala. Zehaztapena: 1. larritasun-maila (hautzaindegietarako aurreikusitako erabilera). A eranskina, hautzaindegi eta ikastetxeetarako espezifikoa.

- UNE-EN 16122:2013. Biltegitratzeko altzariak, etxean erabiltzekoak eta etxeakoak ez direnak. Erresistentzia, iraunkortasuna eta egonkortasuna zehazteko saiakuntza-metodoa.

- UNE-EN 1729-1:2016. Altzariak. Ikastetxeetarako aulkiak eta mahaiak. 1. zatia. Dimentsio funtzionalak.

- UNE-EN 1729-2:2012+A1:2016. Altzariak. Ikastetxeetarako aulkiak eta mahaiak. 2. zatia. Segurtasun-betekizunak eta saiakuntza-metodoak.

- UNE-EN 15372:2017. Etxekoak ez diren mahaietarako baldintzak. Erresistentzia, iraunkortasuna eta segurtasuna.

- UNE-EN: 14988:2018. Haurrentzako tronak. Saiakuntza-eskakizunak eta -metodoak.

- UNE-EN 12790:2010. Puerikulturako artikulua. Hamaka etzanak.

- UNE-EN 12600:2003. Eraikuntzarako beira. Pendulu-entsegua. Inpakturako saiakuntza-metodoa eta beira lauerako sailkapena. Zehaztapena: erorketaren altuera >12m. Haustura mota: C (beira laminarra).

- UNE-EN 12221-1:2009+A1:2013. Puerikulturako artikulua. Etxean erabiltzeko aldagailuak. 1. zatia: segurtasun-baldintzak.

- UNE-EN 12221-2:2009+A1:2013. Puerikulturako artikulua. Etxean erabiltzeko aldagailuak. 2. zatia: saiakuntza-metodoak.

- UNE-EN 1930:2012. Puerikulturako artikulua. Segurtasun-hesiak. Segurtasun-betekizunak eta saiakuntza-metodoak.

- UNE-EN 14372:2005. Puerikulturako artikulua. Mahai-tresnak eta elikatzeko tresnak. Segurtasun-baldintzak eta saiakuntzak.



- Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 1935/2004 (EE) Erregelamendua, 2004ko urriaren 27koa, elikagaiak ukituko dituzten material eta objektuei buruzkoa eta 80/590/EEE eta 89/109/EEE Zuzentarauak indargabetzen dituena.

- 2023/2006 (EE) Erregelamendua, 2006ko abenduaren 22koa, elikagaiak ukituko dituzten materialak eta objektuak fabrikatzeko jardunbide egokiei buruzko Batzordearena.

- Nahitaez bete beharreko indarreko araudi aplikagarri guztiak.

### **3.2.- MATERIALAK ETA AKABERAK**

#### **3.2.1- ESTALDURA PLASTIKOAK.**

- 2005/84/EE Zuzentaraua, 2005eko abenduaren 14koa, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, hogeita bigarren aldiz aldatzen duena Kontseiluaren 76/769/EEE Zuzentaraua, substantzia eta prestakin arriskutsu jakin batzuen (jostailuetako ftalatoak eta puerikulturako artikuluak) merkaturatzea eta erabiltzea mugatzen duten estatu kideen lege-, erregelamendu- eta administrazio-xedapenak hurbiltzeari buruzkoa.

- Hutsen zuzenketa, honako zuzentarau honena: 2005/84/EE Zuzentaraua, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, 2005eko abenduaren 14koa, hogeita bigarren aldiz aldatzen duena Kontseiluaren 76/769/EEE Zuzentaraua, substantzia eta prestakin arriskutsu jakin batzuen (jostailuetako ftalatoak eta puerikulturako artikuluak) merkaturatzea eta erabiltzea mugatzen duten estatu kideen lege-, erregelamendu- eta administrazio-xedapenak hurbiltzeari buruzkoa.

- Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2005eko abenduaren 14ko 2005/84/EE Zuzentaruaren gehigarria. Zuzentarau horrek hogeita bigarren aldiz aldatzen du Kontseiluaren 76/769/EEE Zuzentaraua, substantzia eta prestakin arriskutsu jakin batzuen merkaturatzea eta erabilera mugatzen duten estatu kideen lege-, erregelamendu- eta administrazio-xedapenak hurbiltzeari buruzkoa (jostailuetako ftalatoak eta puerikulturako artikuluak).

- Nahitaez bete beharreko indarreko araudi aplikagarri guztiak.

#### **3.2.2- ZUREZKO TAULA DERIBATUAK.**

- "E1" klasea edo baliokidea; EBko estatu kide guztiek formaldehidoa duten zuretik eratorritako taulen sailkapena, formaldehido-emisioetan oinarrituta, EN 13986 arauaren B eranskinean jasotako definizioaren arabera..

- Nahitaez bete beharreko indarreko araudi aplikagarri guztiak.

#### **3.2.3- ALTZARI TAPIZATUEN SUKOITASUNA.**

- UNE-EN 1021-1:2015. Altzariak. Tapizatutako altzarien sukoitasuna baloratzea. 1. zatia: su-iturria: zigarroa errekuntzan.

- UNE-EN 1021-2:2015. Altzariak. Tapizatutako altzarien sukoitasuna baloratzea. 2. zatia: su-iturria: pospolo baten sugarra.

- UNE-EN 597-1:2016. Altzariak. Tapizatutako koltxoien eta oinarrien sutzea baloratzea. 1. zatia: su-iturria: zigarroa errekuntzan.

- UNE-EN 597-2:2016. Altzariak. Tapizatutako koltxoien eta oinarrien sutzea baloratzea. 2. zatia: su-iturria: pospolo baten sugarra.

- Nahitaez bete beharreko indarreko araudi aplikagarri guztiak.



### 3.3- EBAKUAZIO - SEHASKARAKO LABORATEGI PROGAK

Aurreko puntuetan aipatutako araudiaz gain, laborategiko proba hauek ere egin beharko dituzte, horren ziurtagiri bat aurkeztuta:

- **Sehaskan oinarritutako karga estatikoko saiakuntza**

Saiakuntza honen bidez, alde batetik, sehaskak har dezakeen gehieneko haur kopurua zehaztuko da, oinarriaren eremuaren arabera, eta, bestetik, karga osoa kalkulatu eta jarri ondoren, oinarriaren erresistentzia egiaztatuko da, 5 minutuko kargaren ondoren. Karga simulatzeko, bertikalean jarritako pisuak erabiliko dira.

Proba hori egiteko, sehaskaren oinarria eremu bereko lau koadrantetan banatuko da. Karga zati berdinetan jarriko da koadrante bakoitzaren erdian eta oinarriaren erdigune geometrikoan, hau da, bost karga puntutan.

Sehaska bakoitzeko gehieneko erabiltzaile kopurua kalkulatzeko, oinarriaren eremuaren arabera, formula hau erabiliko da:

*Oinarriaren eremua/Gehieneko erabiltzaile bakoitzak okupatutako eremua (ikus taula) = Erabiltzaileen gehieneko kopurua*

<b>Edad (años)</b>	<b>Percentil 50 (kg)</b>	<b>Percentil 95 (kg)</b>	<b>Área ocupada por usuario (cm<sup>2</sup>)</b>
1,5	10,3	12,2	558
2	12,7	13,2	651
3	14,9	18,9	744
4	16	19,7	744

Kasu horretan, 95. pertzentilaren eta 3 urteko gehieneko adinaren irizpideak aplikatuko dira.

Guztizko karga (kg) kalkulatzeko, prozedura hau erabiliko da:

$$\text{Gehieneko erabiltzaile-kopurua} - 2 = N1$$

Eta, jarraian, formula hau aplikatuko da:

$$\text{Karga osoa (kg)} = (2 \times 95\text{eko pertzentila eta erabiltzailearen gehieneko adina}) + (N1 \times 50.\text{ pertzentila eta erabiltzailearen gehieneko adina})$$

Saiakuntza gainditu dela jotzeko, entseguren ondoren ezin izango da egiturazko akatsik gertatu, ez eta lotura-elementuak lasaitu ere.

- **Errodadura-saiakuntza**

Saiakuntza honen bidez, gurpilek higaduraren aurrean duten erresistentzia egiaztatuko da, 3 cm-ko zabalera eta 2 cm-ko sakonera duten bi bao edo zulo



dituen entsegu-plataforma baten gaineko errodadura jarraitu batek eragindakoa, zoruan irregulartasun bat simulatuz (adibidez, igogailu baten zuloa). Horretarako, sehaska 80kg-rekin kargatuko da eta saiakuntza zikliko bat egingo da; horrela, sehaskako gurpil guztiak bi hutsuneetatik pasatzen direla simulatuko da eta 500 ziklo egingo dira (250 joaneko ziklo eta 250 itzulerako ziklo).

Saiakuntza gaintitu dela jotzeko, ez da lotura-elementuen hausturarik edo askatzerik hauteman behar, ezta zuraren pitzadurarik ere. Saiakuntzaren ondoren, zuloan jarritako gurpilak ezin dira sartu 3 mm baino gehiago.

○ **Gurpilen erresistentzia-saiakuntza inpaktuei aurre egiteko**

Maila bat jaistean gurpilek jasandako talkaren aurrean gurpilek duten erresistentzia egiaztatzea da entsegu honen helburua.

Horretarako, sehaska karga osoa kg-tan kargatuko da (hau da, sehaskak onartzen duen karga osoaren emaitza da, karga estatikoaren saiakuntzan sehaskaren oinarriaren gainean lortutako emaitza), sehaskaren oinarrian jarritako hondar-zakuen bidez. Mugitzen jartzeko, ihes azkarreko zilindro bat erabiliko da, sehaska plataforma batean zehar bultzatuko duena, 17 cm-ko altuerako koska bat jaisten utzi arte. 10 ziklo egingo dira.

Saiakuntza gaintitu dela jotzeko, ez da lotura-elementuen hausturarik, lasaigarririk edo zuraren pitzadurarik antzemango.

○ **Karga estatiko horizontaleko saiakuntza gurpilak hautsi arte**

Entsegu horren helburua gurpil batek apurtzeraino jasango duen gehieneko karga zehaztea da. Oztopo bati lotuta dagoela simulatuko da, eta sehaska aurrerantz bultzatuko da, oztopo hori gaintitzen saiatzeko.

Horretarako, gurpilaren barrualderantz karga horizontala jarriko da. Zama handituz joango da haustura gertatu arte.

Hanka bidezko hausturaren gehieneko karga adierazi beharko da.

Saiakuntza gaintitu dela jotzeko, hanka bidezko hausturaren gehieneko karga 2425 n-koa (edo 242,5 kg-koa) izan beharko da gutxienez.

Halaber, ebakuazio-sehaskak, deskribatutako saiakuntzak gaintitzeaz gain, honako alderdi hauek bete beharko ditu:

- Sehaska ebakuazio-sehaska gisa identifikatu ahal izango da, eta ingurune ilun batean ikusi ahal izango da, edo kea egon daitekeelako ikuspen faltagatik (adibidez, pegatina fotoluminiszenten bidez).
- Kargatutako sehaskak erraz maniobratzeko modukoa izan beharko du pertsona batek ebakuazioan.
- Sehaskaren neurriek aukera eman behar diote ateetako edozein ebakuazio-ibilbidean zehar zeharkatzeko.
- Gutxienez sehaskako gurpiletako bik balazta izan beharko dute.



- "Check List" bat izan beharko du, eta bertan zehaztuko da zer puntu edo alderdi berrikusi behar diren (adib.: askatzeak, hausturak, pitzadurak, etab.) eta zer aldizkakotasunarekin egin behar den.



#### **4- BALDINTZA TEKNIKOEN JUSTIFIKAZIOA:**

Araudia betetzen dela justifikatzeko, produktuaren fitxa teknikoa aurkeztu beharko da (ikus Baldintza Administrazioen Agiriaren VI. eranskina), bai eta dagozkion ziurtagiriak ere, ondoren zehazten diren zehaztapenen arabera:

- Aurreko puntuan zehaztutako altzarietarako eta tresnerirako arauak betetzea, dokumentu hauetako baten bidez:

- **Entsegu ziurtagiria**, laborategi batek sinatua. Ez da onartuko fabrikatzaileek, hornitzaileek edo banatzaileek sinatutako ziurtagiririk.

- **Produktuaren ziurtagiria**, erakunde ziurtatzaile batek sinatua.

- **Produktu-entsegua**, laborategi batek sinatua. Entseguei buruzko txostena aurkeztuz gero, txostena edo dokumentu osoa aurkeztu beharko da. Ez da baliozkoa izango entseguei buruzko txostenaren azala edo orri solteak bakarrik aurkeztea.

- **Adostasun-ziurtagiria**, fabrikatzaileak sinatua. Adostasun-ziurtagiri bakoitzean erreferentzia (artikulu) bat baino gehiago sartu ahal izango dira, baldin eta ziurtagirian aipatutako artikulu horiek araudi bera betetzen badute (ziurtagirian zehaztuko da) eta fabrikatzaile berarenak badira (ziurtagiria sinatuko du). Artikulu desberdinei eskatzen zaien araudia berdina ez bada, ezin izango dira ziurtagiri berean bildu erreferentzia horiek.

- Aurreko puntuan adierazitako ziurtagiriren bat aurkezteaz gain, **6. lotera (elikadura-tresnak)** aurkeztuz gero, enpresaren egiaztagiria aurkeztu beharko da, **Elikagai Enpresen eta Elikagaien Osasun Erregistro Orokorren zenbakiaren arabera (RGSEAA)** - 39. gakoak -, Elikagai Enpresen eta Elikagaien Osasun Erregistro Orokorren buruzko otsailaren 18ko 191/2011 Errege Dekretuaren 2. artikuluan ezarritakoarekin bat etorritik.

Ziurtagiri guztiek zehaztu beharko dute entseguak 0-2 urte bitarteko adinerako egin direla.

Ziurtagiri guztiak Euskal Autonomia Erkidegoko hizkuntza ofizialetako batean aurkeztu behar dira (euskaraz edo gaztelaniaz).

Gainera, 2016. urtea baino lehenagoko saiakuntza edo ziurtagiririk ez da onartuko.

Produktuaren saiakuntza aurkezten ez den kasuetan, **saiakuntzen txostenek eskuragarri egon beharko dute**, zalantzak argitu behar izanez gero eskatu ahal izango baitira.

Fabrikatzailearen erreferentzia eta banatzailearen erreferentzia desberdinak badira, Korrespondentziaren edo Trazabilitatearen Erantzukizunpeko Adierazpena beharko da. Trazabilitate hori argazki bidez egin ahal izango da.



Inola ere ez dira onartuko lau urte baino lehenagoko saiakuntza-bertsioak. Gainera, **entseguak 0 eta 2 urte bitarteko haurrentzat eginak eta egokiak izan beharko dira.**